JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

SUPLEMENTO
al Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava

GEHIGARRIA
Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

2010eko martxoaren 3a, asteazkena ZENBAKIA 25 NÚMERO Miércoles, 3 de marzo de 2010

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**1334**

**3/2010 Foru Araua, otsailaren 22koa, gestio museografikorako eta informazioa web-aren bidez trukatzeko "EMSIME" aplikazioa elkarren artean ustiatu ahal izateko oinarriak ezartzen dituen Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean sinatu beharreko lankidetza-komenioa berrestekoa.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2010ko otsailaren 22an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi dute:

3/2010 Foru Araua, otsailaren 22koa, gestio museografikorako eta informazioa web-aren bidez trukatzeko "EMSIME" aplikazioa elkarren artean ustiatu ahal izateko oinarriak ezartzen dituen Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean sinatu beharreko lankidetza-komenioa berrestekoa.

Euskadiko Museoen abenduaren 1eko 7/2006 legeak, 3. artikuluan, xedatzen ditu Autonomi Erkidegoko administrazioak museo eta bildumen arloan dituen eskumenak eta, eskumenon artean, besteak beste, Euskadiko museo eta bildumen funtsen inbentario orokorra antolatu eta egunean mantentzeko eskumenak; eta sistema informatiko bakarra sarean ezartzeko prozesua sustatu eta prozesuaren buru jartzekoak daude, bai eta ondarearekiko dokumentazioa, ikerkuntza eta zabalkunderako eginkizunak sustatzekoak ere.Beste alde batetik, museo eta bildumek, aipaturiko lege honek arautzen dituen eginkizunak betetzearren, zeinek bere funtsak inbentariaturik behar dituzte izan.

Euskal Gobernuak, Kultura saila bitarte delarik, EMSIME izeneko aplikazio informatikoa garatu du eta beronen jabetza du, aplikazioaren helburua Euskadiko museo eta bildumen funts museografikoak dokumentatzea delarik, bai eta funtson gestioari loturiko eginkizun eta jarduera guztiak errazago egitekoa ere.

Dokumentazioa, hein handi batean, lengoaia eta taula arautuetan sostengatzen da; hori dela eta, tresna hauen gestioa ezinbestekoa da EMSIMEren helburuak erdietsiko badira, funts museografikoen inbentario orokorra osatu eta sarean jartzea eta Euskadiko museo eta bildumen baitan den ondarearen orotariko katalogoa sortzea direlarik.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**1334**

**Norma Foral 3/2010, de 22 de febrero, de ratificación del convenio de colaboración entre el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Álava para establecer las bases en materia de explotación conjunta de la aplicación "EMSIME" de gestión museográfica e intercambio de información a través de la Web.**

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 22 de febrero de 2010, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 3/2010, de 22 de febrero, de ratificación del convenio de colaboración entre el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Álava para establecer las bases en materia de explotación conjunta de la aplicación "EMSIME" de gestión museográfica e intercambio de información a través de la Web.

La Ley 7 /2006, de 1 de diciembre, de Museos de Euskadi, regula en su Art. 3. las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de museos y colecciones, y entre esas competencias se encuentran las de organizar y mantener actualizado el Inventario General de Fondos de Museos y Colecciones de Euskadi; promover y liderar el establecimiento en red de un único sistema informático, así como, impulsar las labores de documentación, investigación y difusión del patrimonio. Por otra parte, los museos y colecciones para cumplir con las funciones que regula la citada Ley, deben tener inventariados sus fondos.

El Gobierno Vasco a través del Departamento de Cultura ha desarrollado y es propietario de una aplicación informática denominada EMSIME cuya finalidad es la de documentar los fondos museográficos de los museos y colecciones de Euskadi, además de facilitar la realización de todas aquellas tareas y actividades relacionadas con la gestión de los mismos.

La documentación se apoya en gran medida en la existencia de lenguajes y tablas normalizadas, por ello la gestión de estos instrumentos es fundamental para conseguir los objetivos de EMSIME, que son la elaboración y puesta en línea del inventario general de los fondos museográficos y la generación del catálogo colectivo del patrimonio que albergan los museos y colecciones de Euskadi.

EMSIME, museo eta bildumetan kontserbatzen diren kultur ondasunen gestioa erraztu ahal duen tresna da eta museoen funts museografiko, dokumental eta administratiboen katalogatzeko eta teknikoki tratatzeko prozesuen bateratzen eta museoon arteko informazio-elkartrukea sustatzen lagundu ahal duena.

Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru-Aldundiak interesa dute, gestio museografikorako eta informazioa web-aren bidez trukatzeko "EMSIME" aplikazioa elkarren artean ustiatu ahal izateko oinarriak ezartzen dituen lankidetza-komenioaren sinatzeko.

Komenioa erakunde biok kulturaren arloan daramaten lankidetzaren barruan kokatu behar da, kultur ondarea babestu eta zabaltzeko politikei dagokienean, zehazkiago, eta horretarako, museo eta bildumen gestioan lagunduko luketen sistema teknikoak ezarri eta mantentzea dute helburua, datuen elkartrukea eta jendeari web bidezko informazioa zabaltzeko aukera eskainiz.

Euskal gobernuak, 2009.eko urriaren 20an eginiko bileran, bestelako erabakien artean, Arabako Foru-Aldundiarekin lankidetza-komenioa sinatzeko erabakia hartu zuen, gestio museografikorako eta informazioa web-aren bidez trukatzeko diseinatutako "EMSIME" aplikazioa elkarren artean ustiatu ahal izateko oinarriak ezartzen dituena.

Arabako Foru-Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2010eko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, onartu du, besteak beste, gestio museografikorako eta informazioa web-aren bidez trukatzeko "EMSIME" aplikazioa elkarren artean ustiatu ahal izateko oinarriak ezarriko dituen eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura-Sailaren eta Arabako Foru-Diputazioaren artean sinatu beharreko lankidetza-komenioa sinatzeko baimena ematen duen erabakia eta, Arabako Foru-Aldundiaren Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Foru-Arauaren 6.1.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, bidezkoa da aipatutako erabaki hau Arabako Biltzar Nagusiek berrestea.

Martxoaren 14ko 20/89 Foru-Arauan ezarritakoari, zehazkiago komenioen tramitazioari dagokionez Biltzar Nagusien Funtzionamenduaren Arautegiaren IV tituluaren II kapituluaren bigarren ataleko 127. artikuluaren eraldatzeari buruzkoari jarraituz,

Artikulu bakarra

Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru-Aldundiaren artean sinaturiko lankidetza-komenioa berresten da, gestio museografikorako eta informazioa web-aren bidez trukatzeko "EMSIME" aplikazioa elkarren artean ustiatu ahal izateko oinarriak ezartzen dituena.

Vitoria-Gasteiz, 2010ko otsailaren 22a.– Presidentea, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

EMSIME es una herramienta que puede facilitar la gestión de los bienes culturales que conservan los museos y colecciones, así como contribuir a la unificación de los procesos de catalogación y tratamiento técnico de los fondos museográficos, documentales y administrativos de los museos, y al intercambio de información entre los mismos.

El Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Álava, están interesados en suscribir un convenio de colaboración para establecer las bases en materia de explotación conjunta de la aplicación EMSIME de gestión museográfica e intercambio de información a través de la Web.

El convenio se inscribe en el marco de la colaboración en materia de Cultura entre ambas Instituciones, en concreto, en lo referente a las políticas de protección y difusión del Patrimonio Cultural a través de la implantación y mantenimiento de sistemas técnicos que ayuden en la gestión de los museos y colecciones y que permitan el intercambio de datos, así como su difusión al público a través de la Web.

El Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 20 de octubre de 2009, adoptó entre otros el acuerdo de propuesta de acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio con la Diputación Foral de Álava para establecer las bases en materia de explotación conjunta de la aplicación "EMSIME" de gestión museográfica e intercambio de información a través de la Web.

El Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava, en sesión celebrada el 26 de enero de 2010, ha acordado entre otros el acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio entre el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco y el Departamento de Euskera, Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava, para establecer las bases en materia de explotación conjunta de la aplicación "EMSIME" de gestión museográfica e intercambio de información a través de la Web, y de conformidad con lo previsto en el artículo 6.1.2 de la Norma Foral de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, procede la ratificación de dicho Acuerdo por las Juntas Generales de Álava.

En base a lo dispuesto en la Norma Foral 20/89, de 14 de marzo, sobre la modificación del artículo 127, sección segunda, Cap. II, Título VI, del Reglamento de Funcionamiento de las Juntas Generales en lo que a tramitación de Convenios se refiere,

Artículo único

Se ratifica el Convenio de Colaboración entre el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco y el Departamento de Euskera, Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava para establecer las bases en materia de explotación conjunta de la aplicación "EMSIME" de gestión museográfica e intercambio de información a través de la Web.

Vitoria-Gasteiz, 22 de febrero de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**1335**

**Zerga Premiazko Araugintza 1/2010 Dekretua berresteko Erabakia. Horren bidez aldatu egiten da ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako, Ondare eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako, Balio Erantsiaren gaineko zergako eta zerga berezietako araudia.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2010ko otsailaren 22an egindako Osoko Bilkuran erabaki zuten Zerga Premiazko Araugintzako 1/2010 Dekretua berrestea, horren bidez aldatu egiten da Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako, Balio Erantsiaren gaineko Zergako eta Zerga Berezietako araudia.

Dekretua Diputatu Kontseiluak 2010ko urtarrilaren 26an onartu zuen eta ALHAOren 13. zenbakian argitaratu zen 2010ko otsailaren 3an.

Vitoria-Gasteiz, 2010ko otsailaren 22a.– Presidentea, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**1335**

**Acuerdo de convalidación del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/2010, que introduce diversas modificaciones en la normativa del impuesto sobre la renta de no residentes, impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados, impuesto sobre el valor añadido e impuestos especiales.**

Las Juntas Generales de Álava, en su Sesión Plenaria celebrada el día 22 de febrero de 2010, acordaron convalidar el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/2010, que introduce diversas modificaciones en la normativa del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, Impuesto sobre el Valor Añadido e Impuestos Especiales.

El Decreto fue aprobado por el Consejo de Diputados el día 26 de enero de 2010 y publicado en el BOTHA nº 13, de fecha de 3 de febrero de 2010.

Vitoria-Gasteiz, 22 de febrero de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

1332

**4/2010 Mozioa, otsailaren 22koa, bakarrik dauden adingabe atzerritarrek Espainian duten egoera eusko jaurlaritzari konpontzeko eskatzeko dena.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2010ko otsailaren 22an egin duten Osoko Bilkuran, ondorengo mozio hau onetsi dute:

4/2010 Mozioa, otsailaren 22koa, bakarrik dauden adingabe atzerritarrek Espainian duten egoera eusko jaurlaritzari konpontzeko eskatzeko dena.

1. Arabako Biltzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatu diote ahalik eta lasterren Osasun eta Gizarte Politikaren Ministerioko Haurren eta Familiako Autonomi arteko Batzordean aurkez dezala Foru Aldundiekin adostutako proposamen bat, Autonomia Erkidegoen eta adingabeak babesteko eremuan eskumena duten beste erakunde batzuen artean dagoen irizpide-aniztasuna, koordinazio gabezia eta elkartasun gabezia gaindituko duena; elementu horiek ondorio txarrak baitituzte pertsona horien eskubide eta betebeharrak egoki bermatzeko orduan. Hori dela-eta, Autonomia Erkidego bakoitzean zenbat pertsonari egingo zaien arreta adostu beharko dute:

- Autonomi arteko koordinazio, elkartasun eta erantzukizuneko beharrezko mekanismoak finkatzea ondokoa lortzeko: adingabe atzerritarren babes egokia eraginkorra dela bermatzea, haurrak eta nerabeak babesteko nazioarteko, estatu mailako zein autonomi mailako legeriarekin bat etorriz.
- Adingabeen Estatuko Erregistro bakar bat egitea, elkarrekin informazioa trukatuz, eskumena duten administrazioek koordinazio-erreminta gisa erabiltzeko.

2. Arabako Biltzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatu diote, Osasun eta Gizarte Politikaren Ministerioko Haurren eta Familiako Autonomi arteko Batzordean proposamen bat egin ondoren, Eusko Legebiltzarrean eta hiru lurraldeetako Batzar Nagusietan akordio horren berri eman dezala.

Vitoria-Gasteiz, 2010ko otsailaren 22a.– Presidentea, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

1332

**Moción 4/2010, de 22 de febrero, por la que se insta al Gobierno Vasco a dar solución a la situación de los menores extranjeros no acompañados en España.**

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 22 de febrero de 2010, aprobaron la siguiente moción:

Moción 4/2010, de 22 de febrero, por la que se insta al Gobierno Vasco a dar solución a la situación de los menores extranjeros no acompañados en España

1. Las Juntas Generales de Álava instan al Gobierno Vasco a que presente con la mayor urgencia posible, en la Comisión Interautonómica de Infancia y Familia del Ministerio de Sanidad y Política Social una propuesta consensuada con las Diputaciones Forales que supere la disparidad de criterio, la falta de coordinación y la ausencia de solidaridad entre Comunidades Autónomas y otras instituciones competentes en el ámbito de la protección de menores; ya que son elementos que repercuten negativamente en la adecuada garantía de los derechos y obligaciones de éstos, llegando a un acuerdo sobre el número de personas a atender por cada Comunidad Autónoma:

- Que se establezcan los mecanismos de coordinación, solidaridad y corresponsabilidad Inter-autonómica necesarios para garantizar que la adecuada protección de los menores extranjeros sea efectiva, de acuerdo a la legislación internacional, estatal y autonómica de protección de la infancia y la adolescencia.
- Que se constituya un Registro Estatal de menores, único, compartido e informatizado, que sirva como herramienta de coordinación para las administraciones competentes.

2. Las Juntas Generales de Álava instan al Gobierno Vasco a que una vez acordada una propuesta en la Comisión Inter-autonómica de Infancia y Familia del Ministerio de Sanidad y Política Social se dé traslado de la misma al Parlamento Vasco y a las Juntas Generales de los tres territorios.

Vitoria-Gasteiz, 22 de febrero de 2010.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.